

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

JUGUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lehiaketa publikoa, VI-10091 esparruko, "Jugu" izeneko, ehiza aprobetxamenduarena

Lehiaketa publikoa, Jugu izeneko VI-10091 ehiza esparruko ehiza aprobetxamenduarena, zeina Jugu, Olano eta Zaitegiko jurisdikzioko lurrek osatzen duten eta titularra, jabe taldearen ordezkartzan, Juguko Administrazio Batzarra baita, administrazio batzar horretan interesdunen eskura dauden baldintzen arabera.

Lizitazio oinarria da hamazazpi mila (17.000) euro urteko, BEZa barne; gehiago eskainiz hobetu ahal izango da.

Behin betiko bermea esleipen zenbatekoaren ehuneko bost (ehuneko 5) izango da.

Ehiza esparruaren ehiza aprobetxamendurako errentamendu aldia hamar (10) urtekoa izango da.

Eskaintzak aurkezteko epea zortzi (8) egun naturalekoa izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

"Jugu" izeneko VI-10091 ehiza esparruaren aprobetxamendua esleitzeko, Arabako Foru Al-dundiaren Nekazaritza Sailak esparrua onetsi behar du aurretik, dagokion foru agindua sinatuta.

Jugu, 2019ko uztailaren 29a

Lehendakaria

BELÉN URIARTE VEA-MURGUÍA